

## EUROZENTRISMOAZ

Hainbeste miseria eta gerraren ostean, ea zergatik dauden horrenbeste errefuxiatu harrera mugagabea galdetzen diot neure buruari. Ez dut ulertzen zein den Mediterraneoan hildako baten eta Kieven hildako pertsona baten artean dagoen aldea. Baina horren erantzun garbia da orain errefuxiatu horiek ilehoriak direla eta begi urdinak dituztela.

Oso interesgarria iruditzen zait Europako herrialdeek ukrainar zuri guztiei ateak nola zabaltzen dizkieten ikustea, beste herrialde batzuetako errefuxiatu batzuk Mediterraneoan itotzen edo Turkian ez atzera eta ez aurrera utzita, ezin dutelako 'miseriarik' sartzen utzi haientzako lekurik ez dagoelako aitzakiarekin. Elkartasun bitxi honek Mendebaldeko munduaren hipokresia erakusten du, eta gizarte honetan pertsona zurien pribilegioa, arrazakeria eta eurozentrismoa nagusi direla erakusten digu.

Gainera, Poloniak, iaz bielorrusiar askori herrialdea zeharkatu eta bere muga hiltzen utzi nahi izan zituen herrialdeak, ukrainar zurientzako 9 harrera zentro irekitzea erabaki du orain. Eta zuria diot Ukrainako agintariek ez dietelako uzten atzerriko jatorria dutenei edo zuriak ez direnei ebakuazio garraioetan sartzen. Gauza bera gertatzen da Polonian eta Hungarian, beste jatorri bat dutenei ez baitiete sartzen uzten .

Berdin gertatzen da Estatu Batuetako politika xenofoboarekin. Mexikoko muga familia batzuei ez zieten sartzen utzi, baina, orain, ukrainar zuriak esku zabalik hartzen dituzte. Adibideak, zoritxarrez, askoz gehiago ere badira.

Kontuan izatekoa da zenbateraino deshumanizatzen ditugun Afrikatik edo Asiatik datozen pertsonak beren herrialdeko egora penagarrietatik alde egin nahi dutelako. Beraz, argi dago zuria eta europarra ez den jendeak ez duela ia baliorik zuri, europarra eta, ziurrenik, kristaua den jendearekin alderatuta.

Dudarik gabe, Ukrainan gertatzen ari dena oso larria eta kaltegarria da; momentu honetan migrazio jario oso garrantzitsuak daude, baina aipatzekoa da pertsona batzuk besteak baino gehiago baloratzen ditugula eta batzuei beste batzuei baino garrantzi handiagoa ematen diegula.

Era berean, ukalezina da, askotan, munduan zehar hedatuta dauden sare sozialek eta hainbat komunikabidek gerra batzuei beste batzuei baino arreta handiagoa jartzen dietela, guztiek garrantzi bera izan beharko balute ere. Ez zaigu axola behar larruzalaren kolorea, erlijioa edo horrelakorik pertsona bat migratzen ari denean, beste guztien laguntza bera merezi du eta.

Ez dago errefuxiatu on edo txarrik, VOXek esaten duenaren kontrara. Bizi-proiektu hobe baten alde sofritzen ari diren pertsonak dira errefuxiatuak, dela gerratik, dela bere herrialdeko egoera ezegonkorragatik edo beste edozein arrazoiengatik. Atlantikoan ez ezik, Mediterraneoan ere bai. Ez dago bestea baino gehiago balio duen bizitarik. Ukrainako errefuxiatuek Afganistango, Palestinako, Siriako eta Etiopiako errefuxiatuen oso antzeko egoerarengatik egiten dute ihes: kasu honetan GERRAGATIK.

Bukatzeko, eta esaten ari naizena zalantzan ez jartzeko, komunikabideetan kazetari batzuek esan berri dituzten astakeriak aipatuko ditut:

- BBC News egunkarian→ *“Hau ez da Irak edo Afganistan, pertsona hauek (ukraniarrei erreferentzia eginez) nahiko zibilizatuak dira.”*
- Fiskal ukrainiar batek→ *“Zaila da egoera hau ikustea, begi urdinak eta ile ilehoria duten europar jendea ikusten bonbardatua izaten.”*
- Al Jazeera kazetari batek→ *“Hauek, klase ertaineko pertsona oparoak dira, ez Ekialde Hurbiletik edo Afrika iparraldetik ihes egiten saiatzen diren errefuxiatuak. Zure ondoan bizi daitekeen Europako edozein familia dirudite”.*